

134. FITXA ARABA – Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak ematea - 2026-2027 deialdia

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko, kuadrillak, kontzejuak eta udalak, Gasteizko Udala izan ezik.

Sarbide-esteka: [Obra eta Zerbitzuen Foru Plana - egoitza](#)

Erreferentziazko araudia: [17/2025 Foru Dekretua, 2025eko maiatzaren 27koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta 2026-2027rako deialdia](#)

Eremuak: Obrak eta zerbitzuak

Zenbatekoa: 40.275.610 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/31ko 23:59ean.

Laburpena

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei **Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren** kontura norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea da deialdiaren xedea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluan ("Obren eta zerbitzuen sailkapena") jasotako **obrak eta zerbitzuak, bai oinarrizko azpiegiturakoak, bai ekipamendu eta zerbitzuetoakoak.**

Urbanizazio edo oinarrizko azpiegiturako obretan sartutako ekipamendu jarduketa osagarriak (eskudelak, zakarrontziak, markesinak, bankuak, hiri hondakin solidoak biltzeko sistemak urperatzea edo ezkutatzea, lorategiak, etab.) joko dira **oinarrizko azpiegiturako obratzat**. Urbanizazio edo azpiegitura obretan sartutako ekipamendu jarduketak osagarriak direla ondorioztatuko da jarduketa horiei dagozkien diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren zenbatekoa obraren diruz lagundu daitezkeen aurrekontu guztiaren% 25 baino gehiago ez denean. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak (moduluak, gehienezko azalerak, etab.) zehazteko arauak eta jarduketa osagarri bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko aplikatu behar den dirulaguntza ehunekoa zehaztekoak 9/2017 Foru Arauan ekipamendukotzat jotzen diren mota bereko obretarako ezarritakoak izango dira.

- b) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagundutako obren **ordainsari teknikoak**.
- **Idazketa ordainsaritzat** hartuko dira gauzatze proiektuak edo memoria baloratuak idazteari dagozkionak, aurretiazko azterlanak, segurtasun- eta osasun-azterlanak edo dokumentu horiek idazteko beharrezkoa den beste edozein azterlan barne.
 - **Zuzendaritzako ordainsaritzat** hartuko dira obra zuzendaritzeari, obra gauzatzeko zuzendaritzeari eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeari dagozkienak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzekin finantzatutako jarduketek amaituta egon beharko dute **2027ko abenduaren 31n**.